



Ikasmina DoKS:

Gipuzkoan bizitza osoko ikaskuntzari
buruzko dokumentuak

Pertsonak eta ikaskuntza formala eta ez formala

65. dokumentua

2019ko uztaila

Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.
Gipuzkoa, un territorio que aprende.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Landa Ingurune eta
Lurralde Orekako Departamentua

AURKIBIDEA

1.	Ikasten duen Gipuzkoako biztanleria	3
1.1.	Ikasten duten pertsonak.....	3
2.	Pertsonak eta ikaskuntza formala.....	5
2.1.	Partaidetza ikaskuntza formalean: generoa eta adina	5
2.2.	Ikaskuntza formala: ikasketa-maila eta lan-egoera	7
2.3.	Ikaskuntza formala egiteko arrazoiak	9
2.4.	Maiztasuna ikaskuntza formala burutzeko garaian.....	12
3.	Pertsonak eta ikaskuntza ez-formala	13
3.1.	Partaidetza ikaskuntza ez-formalean: generoa eta adina	13
3.2.	Ikaskuntza ez-formala: ikasketa-maila eta lan-egora.....	15
3.3.	Ikaskuntza ez-formala egiteko arrazoiak	17
3.4.	Maiztasuna ikaskuntza ez-formala egiterako garaian	19

1. Ikasten duen Gipuzkoako biztanleria


1.1. Ikasten duten pertsonak

Gipuzkoako hamar pertsona heldutik lauk ikasi egiten dute

25etik 74 urtera bitarteko hamar gipuzkoarretatik lauk¹ (%39,6) ikaskuntza formaleko edo ez-formaleko jardueraren bat burutu dute azken hamabi hilabeteotan. Azken urteetan egonkor mantendu den proportzio bat da, eta horrek erakusten du ikaskuntza-jarduera oso errotuta dagoela Gipuzkoako biztanle helduentzako.

1. grafikoa Ikaskuntza formala eta ez-formala egiten duten pertsonak

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Deptua.


¹ Gipuzkoako pertsona helduek bizitza osoan zehar egiten duten ikaskuntzari buruzko inkesta (2019. urte hasieran egin).

Pertsona helduek bizitza osoan zehar egiten duten prestakuntzak ikaskuntza formala eta ez-formalari egiten die erreferentzia:

- ikaskuntza formala. Arauturiko ikaskuntza-jarduerak barneratzen ditu (sartzeko baldintzak eta curriculum-edukiak araututa daude), eta hezkuntza-eremuaren barnean ematen dira (baimenduriko pertsonak eta erakundeek ematen dituzte); azken helburua titulu ofizial bat eskuratzea da.
- Ikaskuntza ez-formala. Edozein eremutan eginiko ikaskuntza-jarduerak hartzen ditu (hezkuntza-erakunde batean, enpresan, beste eremu batzuetan...). Helburua ikaskuntza-helburu jakin batzuk lortzea da, ezarritako edukien programa betez, baina jarduera horiek amaitzean ez da lortzen titulu ofizialik, hainbat ziurtagiri-mota lor badaitezke ere.

2. grafikoa Ikasten duten pertsonak, ikaskuntza-motaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Deptua.

Zentzu honetan, Gipuzkoako pertsona helduen %9,3k ikaskuntza formaleko jardueraren bat egin du azken urtean: ehuneko horri eutsi egin zaio urteetan zehar, eta 2013 eta 2018 bitartean balio horren inguruan mantendu da.

Bestalde, pertsonen %35,1k ikaskuntza ez-formaleko jardueraren bat egin du. Emaiza hau, bere aldetik, egonkor mantendu da azkenaldian, esanguratsuak ez diren urteen arteko aldaketekin.


2. Pertsonak eta ikaskuntza formala

2.1. Partaidetza ikaskuntza formalean: generoa eta adina

Ikaskuntza formaleko partaidetza-tasa %9koa da, eta emakumeen kasuan zertxobait altuagoa da (%10)

Azken urtean zehar, Gipuzkoako biztanle helduen %9,3k aitortu du ikaskuntza formaleko jardueretan parte hartu duela galdeketa egin aurreko hamabi hilabeteetan. Bestalde, generoaren arabera, parte-hartzea zerbait altuagoa da emakumeen artean (%10,2), gizonezkoen artean baino (8,5%).

3. grafikoa Ikaskuntza formala egiten duten pertsonak, sexuaren arabera




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua.

Adinaren papera erabakigarria da ikaskuntza formalean: ia 27 puntuko aldea dago gazteen eta adinekoen partaidetzaren artean

Ikaskuntza formaleko jardueraren eragina modu nabarmenean aldatzen da pertsonen adinaren arabera, eta adinarekin murriztu egiten da, era argian. Horrela, 25etik 34 urtera bitarteko pertsonen %28,2k ikaskuntza formaleko jardueraren batean parte hartu duela adierazi du, eta, bitartean, ehuneko hori ia baliogabea da (%1,5koa) 65etik 74 urtera bitartekoen artean.

Beraz, ehuneko 27 puntuko diferentziala dago talde gazteenaren eta helduenaren partaidetzaren artean, ikaskuntza formaleko jardueretan parte hartzeari dagokionez. Gainerako adin-taldeak erdibidean daude, eta joera beherakorra da adinak gora egiten duen heinean. Honen salbuespen bat da 35-44 urteko pertsonen parte-hartzea ikaskuntza formalean (%7,5) arinki baxuagoa da 45-54 urteko taldekoarekin alderatu ezkerre (8,2%).

4. grafikoa Ikaskuntza formala egiten duten pertsonak, adinaren arabera.



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua.

2.2. Ikaskuntza formala: ikasketa-maila eta lan-egoera


Ikasketa-maila erabakigarria da ikaskuntza formalean parte hartzerako orduan

Orokorrean, lotura zuzena dago pertsonen ikaskuntza-jardueretan duten parte-hartzearen eta lortutako ikasketa mailaren artean. Beraz, mota honetako jardueretan antzemandako parte-hartzea altuagoa da ikasketa maila altuagoa duten pertsonen artean.

Ondorengo grafikoaren arabera, goi-mailako ikasketak dituen Gipuzkoako biztanleria helduaren %15,4k ikaskuntza formaleko jardueraren bat burutu du, eta zifra hau batez besteko orokorrarekin alderatuz ehuneko 6,1 puntu altuagoa da. Ordea, bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen artean parte-hartzea %5,0ra jaisten da, eta oraindik gehiago murrizten da ikaskuntza-maila altuena lehen mailako ikasketak dituzten pertsona helduen kasuan (%3,1).

5. grafikoa Ikaskuntza formala, ikasketa-mailaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua.

Langabezi egoeran dauden pertsonak dira gehien prestatzen direnak

Lan-merkatuaren aldetik eskatzen diren lanen zati esanguratsu batek ezagutza batzuen ziurtatzea eskatzen dute, eta horretarako ezinbestekoa da titulu ofizialaren bitartez egitea (kasu gehienetan).


Ikaskuntza formalaren prozesua, ikaskuntza orokorraren aldia amaitu ondoren garatu ohi da. Gainera, modu jarraituan eta ondoz ondokoan egin ohi da, lan-merkatuan sartu aurreko etapa gisa.

Prestakuntza arautuaren edo ikaskuntza formalaren prozesua hori izaten bada ere, garrantzitsua da, era berean, jada lan-munduan dauden (lanarekin edo ez) eta ikaskuntza formaleko jardueretan parte hartzen duten pertsona helduen taldea.

Beraz, eta lan-egoeraren arabera, azken urtean ikaskuntza formalean gehien parte hartu duen taldea langabezi egoeran dagoena da (%16,7); jarraian, lanean ari den pertsonen taldea dago (%9,5), eta azkenik beste egoera batean dauden pertsonen taldea (%1,6).

6. grafikoa Ikaskuntza formala, lan-egoeraren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Deptua.

2.3. Ikaskuntza formala egiteko arrazoiak

Ikasteko arrazoi nagusia motibazio profesionala da

Analisiari dagokionez, ikasteko motibazioa bi talde handitan sailkatzen da: arrazoi profesionalak eta arrazoi pertsonalak. Zentzu honetan, ikaskuntza formaleko jardueretan parte hartu duten pertsonen erdiak baino zerbait gehiagok adierazten dute ikasteko arrazoi nagusia jarduera profesionalarekin lotua dagoela.

Alderdi hau errepikatu egiten da era orokortuan ikusitako ia talde guztietan, generoaren eta adin taldeen arabera. Hala ere, ikusten da gizonezkoek gehiago adierazten dutela motibazio profesionala (%58,8, emakumeen %48,8arekin alderatuz). Ordea, emakumeak dira hein handiago batean arrazoi pertsonalak argudiatzen dutenak (%51,2, emakumeen %41,2arekin alderatuta).

1. taula Motibazioa ikaskuntza formalerako, generoaren eta adinaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %

	Arrazoi profesionalak	Arrazoi pertsonalak
GUZTIRA	53,3	46,7
Emakumezkoak	48,8	51,2
Gizonezkoak	58,8	41,2
Adin taldak		
25-34 urte	62,2	37,8
35-44 urte	53,3	46,7
45-64 urte	42,9	57,1
65-74 urte	0,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Deptua.

Hiru argudio zehatz nabarmentzen dira: gai erabilgarrietako ezagutzak eskuratzea lan-aukerak hobetzeko, ziurtagiria lortzea eta pertsonarentzat intereseko gaia izatea

Biztanleria gipuzkoarrak aipaturiko arrazoi desberdinetan ardatzu ezkerko analisia, ondorengo emaitzak azpimarratzen dira:

- Motibazio profesionalari loturiko ia erantzun guztiak bat datoz hauei dagokienez: "ziurtagiria lortzea" (%73,3 batez beste) eta "nire lana hobeto egiteko eta/edo nire lanbide-aukerak hobetzeko" (%72,0). Horiek dira bi arrazoi nagusiak, eta argi eta garbi daude lotuta lan-jarduera, karrera profesionala eta pertsonen enplegarritasunarekin.

- Bigarren tokian aipatzen diren argudioak, lan-ibilbidearekin loturikoak, hauek dira: “lan bat lortzeko aukera gehiago izatea” (%54,7) eta “lanaz aldatzeko aukera gehiago izatea” (%44,0).

Beraz, berresten da motibazio profesionalaren garrantzia, arrazoi xeheen arabera, ikaskuntza formaleko jarduerak burutzeko garaian. Gainera, patroia desberdina da gizonezko eta emakumezkoen artean, azpimarratu beharreko ondorengo alderdiekin:

- “Lanaz/Lanbidez aldatzeko nire aukerak handitzea” argudioa; gizonen %58,8ak motibazio gisa azpimarratzen duen bitartean, proportzio hau jaitsi egiten da %31,7ra emakumezkoen kasuan (ehuneko 27,1 puntuko diferentzia).
- “Lan bat lortzeko nire aukerak handitzea” argudioa, gizonezkoen %64,7ra iristen da, emakumeetan %46,3ra jaisten den bitartean (ehuneko 18,4 puntu gizonen alde). Modu honetan ondorioztatu daiteke akaso emakumezkoen sarbidea lan-merkatura baxuagoa dela.

Azkenik, ikaskuntza jarduerak burutzeko arrazoi pertsonalen artean, “interesatzen zaidan gai baten inguruko ezagutzak edo teknikak eskuratzea” (%85,3) eta “nire eguneroko bizitzarako erabilgarriak direnak” (%69,3) azpimarratzen dira.

2. taula Ikaskuntza formalerako berariazko arrazoiak, generoaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Arrazoi profesionalak			
Nire lana hobeto egiteko eta enpresan duen posizioa hobetzeko	72,0	73,5	70,7
Enpresaz aldatzeko aukerak handitzeko	41,3	50,0	34,1
Lana/lanbidea aldatzeko aukerak handitzeko	44,0	58,8	31,7
Nire negozioa sortzeko	14,7	20,6	9,8
Lana lortzeko	54,7	64,7	46,3
Ziurtagiria lortzeko	73,3	79,4	68,3
Arrazoi pertsonalak			
Bizitza pertsonalerako erabilgarriak diren ezagutzak eskuratzeko	69,3	79,4	61,0
Interesatzen zaidan gai baten inguruan ezagutzak eskuratzeko	85,3	91,2	80,5
Jendea ezagutzeko	36,0	41,2	31,7

Erantzun anitza

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko Deptua.

Arrazoi desberdinek pisu eta garrantzia antzekoa dute ikasketa-mailen arabera

Ondorengo koadroak emaitzaren banaketa azaltzen du pertsonen ikasteko motibazioari eta lortutako ikasketa mailari dagokionez. Horrela, jasotako emaitzetatik ondorioztatzen da:

- Emaizen sailkapena partekatua da, bai arrazoi profesionalen eta baita pertsonalen artean, eta desberdintasunak ez dira esanguratsuak.
- Horrela, ikasteko garaian *“nire lana hobeto egitea edota lan-aukerak hobetzea”* eta *“ziurtagiria eskuratzea”* dira aipatuena diren bi arrazoi profesionalak ikaskuntza formala egiteko, eta lortutako ikasketa mailarekiko independenteki (bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonak izan ezik).
- Hirugarren argudioa *“lan bat lortzeko nire aukerak handitzea”* da, mota honetako ikaskuntza egin duten pertsonen erdiak adierazia, eta bat datoz hiru ikasketa mailetan (bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen kasuan izan ezik, aipatuena izan den bigarren arrazoa delarik).
- Gainontzeko argudioak neurri baxuagoan aipatzen dira kasu guztietan, baino antzekoak edo nahiko gertukoak diren emaitzekin.

Azkenik, *“bizitza pertsonalerako erabilgarriak diren ezagutzak eskuratzeko”*, da aipaturiko arrazoi nagusia da- gutxienez- hiru taldeetako %80an.

3. taula Ikaskuntza formalerako arrazoiak, ikasketa-mailaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %

	Lehen mailakoak	Bigarren mailakoak	Goi mailakoak
Arrazoi profesionalak			
Nire lana hobeto egiteko eta enpresan duen posizioa hobetzeko	80,0	57,1	75,0
Enpresaz aldatzeko aukerak handitzeko	73,3	79,4	68,3
Lana/lanbidea aldatzeko aukerak handitzeko	54,7	64,7	46,3
Nire negozioa sortzeko	40,0	28,6	44,6
Lana lortzeko	44,0	58,8	31,7
Ziurtagiria lortzeko	14,7	20,6	9,8
Arrazoi pertsonalak			
Bizitza pertsonalerako erabilgarriak diren ezagutzak eskuratzeko	85,3	91,2	80,5
Interesatzen zaidan gai baten inguruan ezagutzak eskuratzeko	69,3	79,4	61,0
Jendea ezagutzeko	36,0	41,2	31,7

Erantzun anitza

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko Deptua.

2.4. Maiztasuna ikaskuntza formala burutzeko garaian


Partaidetza etengabeko ikaskuntza formalean %7koa da

Ondoren, ikaskuntza jarduerak egiteari egiten zaio erreferentzia, bi une tenporaletan: alde batetik, galdeketa burutu baino lehenagoko hamabi hilabeteetan zehar egiten dena; eta bestetik, azken lau hilabeteetan burututakoa- hau da, ikaskuntza jarraitua-.

Zentzu honetan, %6,5ek ikaskuntza formala egiten du, parte-hartze zertxobait altuago batekin emakumeen artean (%7,2) gizonezkoekin alderatu ezker (%5,8).

7. grafikoa Maiztasuna ikaskuntza formalean, generoaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Deptua.

Adin-taldearen arabera, partaidetza ikaskuntza formal jarraituan argi eta garbi altuagoa da biztanleria gaztearen artean (%20,6). Hala ere, parte-hartzea jaitsi egiten da adina hazten doan heinean (azken 12 hilabeteetan burutzen den prestakuntzarekin gertatzen den antzera), ia nulua izatera iritsi arte pertsona adinekoen artean.

4. taula Maiztasuna ikaskuntza formalean, adin-taldearen arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %

	Azken 12 hilabeteak	Azken 4 asteak
Adin taldeak		
25-34 urte	28,2	20,6
35-44 urte	7,5	4,0
45-64 urte	6,2	4,4
65-74 urte	1,5	3,5

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Deptua.

3. Pertsonak eta ikaskuntza ez-formala


3.1. Partaidetza ikaskuntza ez-formalean: generoa eta adina

Gipuzkoako pertsona helduen heren batek parte hartu du ikaskuntza ez-formaleko jardueraren batean

Ikaskuntza ez formaleko ikaskuntza-jarduerak ez dute titulu ofizial baten lorpena suposatzen, baino bai eskatzen dutela eduki-programa bat eta helburu zehatzak edukitzea. Aldi berean, oso aldakorra den iraupena izan dezakete eta esparru desberdinetan burutuak izan daitezke (ez daude hezkuntza esparruari lotuak nahi eta nahi ez).

8. grafikoa Ikaskuntza ez-formala egiten duten pertsonak, generoaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Deptua.

Zentzu honetan, biztanleria helduaren heren batek (%35,1) adierazi du ikaskuntza ez formaleko jarduerak egin izana azken urtean zehar. Ehuneko hau antzekoa da


gizonezko eta emakumezkoen artean, baino arinki altuagoa da emakumezkoen artean (%36,7, gizonezkoen %33,5arekin alderatuz).

Ikaskuntza ez-formaleko parte-hartzea jaitsi egiten da adinarekin

Ikaskuntza jarduera ez formalen burutzeak behera egiten du pertsonen adina hazten doan heinean, ikaskuntza formalaren kasuan gertatzen den antzera.

Gauzak horrela izanik, 25etik 34 urtera bitarteko hamar gaztetik lauk (%42,7) eta 35etik 44 urtera bitarteko hamar pertsonatik bostek (%48,5) parte hartu dute ikaskuntza ez-formaleko jardueraren batean azken 12 hilabeteetan. Erregistro hau, hala ere, gutxitzen doa progresiboki ondorengo adin taldeetan, %13,6an kokatu arte 65 eta 74 urte arteko pertsonen kasuan.

9. grafikoa Ikaskuntza ez-formala egiten duten pertsonak, adin-taldean arabera



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Deptua.


3.2. Ikaskuntza ez-formala: ikasketa-maila eta lan-egora

Goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen ia erdiak baino burutu dute ikaskuntza ez-formaleko jardueraren bat

Ikaskuntza ez-formaleko partaidetza igo egiten da, argi eta garbi, pertsonen ikasketa-mailaren arabera. Hori horrela izanik, goi mailako ikasketak dituzten ia pertsonen erdiak mota honetako jarduerak burutu dituzte (%47,3). Hala ere, proportzio hau ia heren bat jaisten da bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen kasuan (%31,8), eta oraindik gehiago jaisten da lehen mailako ikasketan dituztenetan (%13,2).

10. grafikoa Ikaskuntza ez-formala, ikasketa-mailaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Deptua.


Ikaskuntza ez-formaleko partaidetza handiagoa da lan-jarduera duten pertsonen kasuan

Pertsonen egoerari dagokionez lan-merkatuarekiko (ordaindua), antzematen da ikaskuntza ez formalaren burutzea argi eta garbi altuagoa dela egoera aktiboan dauden pertsonen artean (edo lanean aurkitzen direlako edo langabezia daudelako).

Zentzu honetan, enplegua duten bi pertsonatik batek mota honetako jarduerak egin izana adierazten du azken hamabi hilabeteetan (%45,2), eta langabezi egoeran dauden pertsonen artean ehuneko hori %31,9an kokatzen da. Hala ere, partaidetza jaitsi egiten da %20tik behera, lan-merkatuan aktiboak ez diren pertsonen kasuan (erretiratuak, etxeko lanak burutzen dituztenak, lan-merkatura sartu ez direnak, etab.).

11. grafikoa Ikaskuntza ez-formala, lan-egoeraren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Deptua.

3.3. Ikaskuntza ez-formala egiteko arrazoiak

Hamar pertsonatik seik arrazoi profesionalengatik hartzen du parte ikaskuntza ez formalean

Ikaskuntza ez formala burutzeko arrazoien artean funtsezkoa da lan-jarduera. Zentzu honetan, ikaskuntza jarduera ez formaletan parte hartu duten hamar pertsonatik zazpik (%71,3) adierazi du arrazoi profesionalengatik burutu zuela bereziki.

Egoera hau bi generoetan errepikatzen da, adin-segmentuetan gertatzen den antzera, 65 urte eta gehiagoko taldea izan ezik. Izan ere, adin horretatik aurrera motibazioa guztiz pertsonala izatera pasatzen da (%100).

5. taula Ikaskuntza ez-formalerako motibazioa, generoaren eta adinaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %

	Arrazoi profesionalak	Arrazoi pertsonalak
GUZTIRA	71,3	28,7
Emakumezkoak	68,2	31,8
Gizonezkoak	74,6	25,4
Adin taldak		
25-34 urte	69,6	30,4
35-44 urte	83,5	16,5
45-64 urte	72,1	27,9
65-74 urte	0,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Deptua.

Arrazoi nagusiak: lanbide-aukerak hobetzea eta intereseko gai baten inguruko ezagutzak lortzea

Xehetasun handiagoarekin aztertu ezkerreko aipaturiko arrazoiak, antzematen da ikaskuntza ez formaleko jarduerak egiten dituen Gipuzkoako pertsonen zati handi batek "nire lana hobeto egiteko edota nire lan-aukerak hobetzeko" egiten duela (%75,5). Jarraian datoz "interesatzen zaidan gai baten inguruan ezagutzak eskuratzeko" (%80,5) eta "bizitza pertsonalerako erabilgarriak diren ezagutzak eskuratzeko" (%56,0). Kasu hauetan, halaber, ez dira desberdintasun azpimarragarriak antzematen generoaren arabera.

Bigarren multzo batean aipatu dira: "ziurtagiri bat lortzeko" (%33,3), "lana aurkitzeko aukera gehiago izateko" (%22,0) eta "jendea ezagutzeko/ondo pasatzeko" (%21,3).

Azkenik, gainerako arrazoiak hein baxuago batean aipatzen dira, mota honetako jardueretan parte hartzen duen biztanleriaren %20 baino ehuneko baxuagoa suposatzen baitute. Azpimarratu behar da, orokorrean, ez direla ezberdintasun nabarmenik antzematen gizonezko eta emakumezkoen artean.

6. taula Ikaskuntza ez-formalerako berariazko arrazoiak, generoaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %

	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Arrazoi profesionalak			
Nire lana hobeto egiteko eta enpresan duen posizioa hobetzeko	75,5	75,7	76,0
Enpresaz aldatzeko aukerak handitzeko	33,3	38,1	29,1
Lana/lanbidea aldatzeko aukerak handitzeko	22,0	22,4	21,6
Nire negozioa sortzeko	16,3	15,7	16,9
Lana lortzeko	14,9	14,2	15,5
Ziurtagiria lortzeko	10,3	11,9	8,8
Arrazoi pertsonalak			
Interesatzen zaidan gai baten inguruan ezagutzak eskuratzeko	80,5	79,1	81,8
Bizitza pertsonalerako erabilgarriak diren ezagutzak eskuratzeko	56,0	50,7	60,8
Jendea ezagutzeko	21,3	18,7	23,6

Erantzun anitza

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko Deptua.


3.4. Maiztasuna ikaskuntza ez-formala egiterako garaian

Gipuzkoako biztanle helduen %36k parte hartu du ikaskuntza ez-formalean azken urtean; eta ordea, % 13k azken lau astetan

Aurretik aipatu den bezala, ikaskuntza jarraitua galdeketa egin aurreko lau asteetan burutzen denari dagokio. Horrela, ikaskuntza ez jarraituari dagokionez, pertsona helduen %12,6k parte hartu du ikaskuntza ez formalean galdeketa aurreko 4 asteetan.

Aldi berean, ez dira desberdintasun azpimarragarriak antzematen generoaren arabera. Ordea, adinaren arabera, parte-hartzea altuagoa da pertsona gazteenen artean, eta adina hazi egiten den heinean parte-hartzea jaitsi egiten da.

12. grafikoa Maiztasuna ikaskuntza ez-formalean, sexuaren arabera



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Deptua.

7. taula Maiztasuna ikaskuntza ez-formalean, adinaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren %

	Azken 12 hilabeteak	Azken 4 asteak
Adin taldeak		
25-34 urte	42,7	19,8
35-44 urte	48,5	16,0
45-64 urte	32,6	13,8
65-74 urte	13,6	10,6

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Deptua.



Titulua:	Pertsonak eta ikaskuntza formala eta ez formala 65. dokumentua, 2019ko uztaila
Koordinazioa eta gainbegiratzea:	Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua
Egilea:	IKEI, research & consultancy S.A.
Landa- lana: Gipuzkoa	Gipuzkoan bititza osoan zeharreko ikaskuntzari buruzko inkesta. Datakey, S.A, 2019.